



Izenburua: **Urrezko duna**

Egilea: **Miren Agur Meabe**

Bilduma: **Auskalo, 72**

Adin gomendatua: **10 – 13 urte**

ISBN: **978-84-1093-053-7**

Salneurria: **12,00 €**

Poz handia ematen dit aspaldiko partez umeentzako liburu bat aurkezteak. Liburu hau egokia izan daiteke Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera, misterioak gogoko dituzten irakurleentzat.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot Irimarra-Karmele Gorroñori ilustrazio dotoreengatik. Azalean bertan ageri dira istorio honetako protagonistak: lau ume eta txakur bat.

- **ARGUMENTUA**

Labur dezagun nobelatxo hau osatzen duten 16 kapituluaren edukia.

Mara eta gurasoak Landetako *La dune d'or* kanpinera iritsi dira. Baita Pellot ere, etxeko txakur adoptatua. Kanpineko klubean, begirale gaztea —Katixa— eta beste ume batzuk katamaloak egiten ari dira gauean izango den mozorro-festarako, itsas animalien maskarak. Mara harremanak egiten hasiko da, batzuk goxoagoak beste batzuk baino.

Lehen egun horretan, Mararen amak faltan hartuko du bere zilarrezko eraztuna: desagertu egin da bungalowtik. Baina, itxura batean, gauza gehiago desagertu dira kanpinean auto baten giltza, domina bat...), Mararen harridura piztuko dutenak.

Gauean, Marak eta lagunek silueta beldurgarri bat begiztatuko dute hondartzan, eskuan kriseilua eta kakoa daramatzan norbaitena. Eta Katixaren bidez, Marinexa Kakottipiren berri izango dute, kondairaren arabera oraindik ere noizean behin lehorrerutzen den antzinako pirata. Harena ote da hondartzan erdi hondoratuta dagoen txalupa zaharra, *La Basque?* Agian bertan ezkutatuta egingo dira kanpineko altxorrak...

Mara eta lagunak ikertzen hasiko dira, baina istripua izango dute itsasoan... “Metalezko kako hotza sentitu dut lepoan, Jarraian, tirakada sendoa, uretatik ateratzen. Lagunen kexuak heltzen zaizkit. Denak salbatu ote dira? Pelloten mihia aurpegia mihizkatzen sentitu dudanean ireki ditut begiak” (51).

Eta abar eta abar... Marak argituko du kasua, ustekabeen.

Azkenerako, *Urrezko duna* kanpina adiskidetasunaren txokoa bihurtuko da denentzat. Baina o! Beste arazo bat sortuko da, zoritxar latza, Pellotekin zerikusia duena... Eta horri buruzko misterioaren bat ere deskubrituko dute.

- **PERTSONAIAK**

Mara: neska azkarra, jakinguratsua eta behatzaile zorrotza, irudimentsua bezain analitikoa. Detektibe-bokazioa du eta horregatik egiten ditu hainbeste galdera, datuak lortzeko. Lider saiatua, bere hipotesietara erakartzen ditu besteak, gutxi-asko.

Balea du animalia kutuna, noizean behin ur azalera ateratzen delako oxigeno bila, eta berak ere behar izaten du hori, “birikak airez bete”; beste era batera esanda, bere kasa ibili.

Mararen konplize leiala, Pellot txakur aparta: begibakarra, eta hiru hankakoa, jatuna eta jatorra. Zaunkarik egiten ez dakien txakurra. Bere itsustasuna dela-eta egiten dizkioten burlak edo destainak gainditzeko, Marak istorio epiko samarrak asmatzen ditu berari buruz, heroi kategoria emateraino.

Bibi eta Batti, edo B bikoitza: neba-arreba bikiak, Mararen esanetan, “bata azukrea eta bestea gatza”. Izan ere, bata ezpatarraina bezain harroa eta zirikatzailea da, eta bestea, itsas kurkuilua bezain apala eta lasaia.

Luka: sentibera eta sormen handikoa, bere gaitasunei distira ateratzen dakiena. Marmoka du klabe-izena, berak egindako katamaloagatik.

Katamaloek, bistan denez, bakoitzaren izaera islatzen dute. Pertsonaiok tarteka haserretu egiten dira beren artean, baina umorez eta samurtasunez txirikordatzten dira beren harremanak.

Pertsonaia sekundarioak: Katixa begiralea eta honen ama, Mararen gurasoak...

- **PELLOTEN IKASBIDEAK**

Aipamena merezi dute Pelloten ikasbideek.

Pellot filosofo bat da. Egoeraren arabera, hau edo beste irakatsiko dio Marari, bizitzarako balioko dioten printzipioak, zelan eta bere begirada hutsaren bidez. Izan ere, Marak izaki horren txikitasunean proiektatzen ditu bere gogoetak. Adibide batzuk:

- ***Benetako begiak bihotzarenak dira.*** Printze txikiaren antzekoegia agian.
- ***Adiskidetasuna ez da perla perfektu bat***
- ***Plazeraren ordua sakratua da.***
- ***Asko balio du asmatzeak, gutxiago ez saiatzeak.***
- ***Itxaropena da ameslarien ezpata.***
- ***Pertsona zintzo bat, altxor bat.***
- ***Hauxe da maitasuna: agur esan nahi ez izatea.***

- **IDAZKERA**

Nire praktikan ohikoak diren formulak erabili ditut:

- 1. pertsonaren erabilera, identifikazioa errazten duelakoan
- esaldi pausatuak
- ukitu poetikoak
- dramatismo komikoa (lehen irakurritako pasarteak)
- deskribapen xumeak. Esaterako: “Dunen arteko zidorra bestelakoa iruditu zait zaparradaren ondoren. Txolarreak pasarelan, mariorratzak ihien artean, triku bat sastraka baten azpian... Dena zehatz, dena garden, dena bere tokian, dekoratu bat bezala” (44).

Eta beti bezala, saiatu naiz traman uztartzen **munduari buruzko ezagutzaren bat**, baleek sortzen duten anbar grisari buruzko jakingarriak, zehazki, ikuspuntu humanitario batetik.

Gune naturalei buruzko kezka ekologikoa ere azaleratzen da azken partean.

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962).

Irakaslea eta eskolarako liburuen editorea izan naiz urte askoan, baina idaztea niretzat beti izan da biziago sentitzeko modu bat. Poesia eta haur eta gazteentzako lanak idatzi ditut batez ere, azken horien artean *Mila magnolia-lore*, *Izar bat zopan* edo *Urtebete itsasargian*. Nire liburuetako batzuek sari garrantzitsuak jaso dituzte.